

LETRAK AHORA II. LITERATUR LEHIAKETA

Parte-hartzaileak: Lehiaketa honetan 16 urtetik gorakoek har dezakete parte, edozein dela haien bizitokia.

Sailak: Lehiaketak bi sail izanen ditu: narrazio laburra eta poesia.

Lanak aurkezteko epea: Lanak aurkezteko epea 2019ko irailaren 29an bukatuko da, egun hori barne.

Lanak aurkezteko modua: Lanak Internet bidez bidaliko dira kultura@arbizu.eus helbidera pdf formatuan. Datuak (izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta e-posta) beste dokumentu batean bidaliko dira.

Baldintzak:

- Lanak originalak, aurrez saritu gabeak, argitaratu gabeak eta euskaraz sortuak izanen dira.
- Gaia gastronomia izanen da.
- Ez dira bertsopaperak onartuko.
- Lanak bakarka egingo dira. Egile bakoitzak nahi beste testu aurkez litzake.
- Lanek ondoko luzera izanen dute (lerro artean tarte bikoitza utzita):

Narrazio laburra	Poesia
Orrialde 1 (1.500 karaktere) gutxienez 3 orrialde gehienez	10 lerro gutxienez 50 lerro gehienez

Sariak: Sail bakoitzean sari bana emanen da: 100 € + argitalpen ilustratua. Narrazio laburra eta poesia biak argitalpen berean plazaratuko dira.

Sari banaketa: Sari banaketa 2019ko urriaren 13an egingo da, Arbizuko Txistor Egunean.

Epaimahaia: Epaimahaia Castillo Suárez eta Jon Barberena idazleek osatuko dute. Sariak eman gabe gera litezke, baldin eta obrek ez balute behar bezalako merezimendurik. Era berean, sariak *ex aequo* moduan banatu ahal izanen dira bi lanen artean. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da. Lehiaketan parte hartzeak lehiaketako arau guztiak eta epaimahaiaren nahiz antolatzaileen erabakiak onartzea dakar.

Datuen babesa: Datu pertsonalak babesteko 2016/679 Erregelamenduak ezarritakoa betetzeko, parte-hartzaileek onartu egiten dute lehiaketa honetan ematen dituzten datu pertsonalak Arbizuko Udaleko fitxategi batean gordeta geratuko direla. Parte-hartzaileek eskubidea dute beren datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, haien tratamendua murrizteko edota haren kontra egiteko. Horretarako, jakinarazpen idatzia bidali beharko dute Arbizuko Udalera.

Antolatzailea:



Arbizuko
Udala